



**1.Zer eskaini behar dio kanpamentu egokiak umeari?**

Honelako kanpamentuak umeen autonomia sustatzeko egin ohi dira, honetaz gain ondo pasatzeko ere badira. Gehienetan funtzio hau betetzen da eta organizazioa nahiko ona izaten da. Gurasoek umeak autonomia handiagoa izatea gura dute; monitoreek, berriz beste xede batzuk ere badituzte, umeen bizitza soziala garatu, jolasak eta kirolak ikasi, arduratasuna, erkidetasuna eta umeen arteko kooperazioa.

**2.Umeak kanpamentuetara joateko zein adin da komenigarria ?**

Nire ustez, ez dago adin konkreturik, umearen araberakoa da, bakoitzak duen garapen mailaren araberakoa. Umeari kostatzen bazaio ez da ona bat-batean hamabi eguneko kanpamentu batera joatea, pixkanaka joan behar da, lehenengo eguneko txangoak, gero asteburukoak eta azkenik, kanpamentuak.

**3.Lehenengo aldiz etxetik kanpo lo egingo duen ume bat nola prestatu behar dute?**

Etxetik kanpo igarotzen den lehenengo gaua senide baten etxean edo umeak asko ezagutzen duen pertsonarenean izan beharko litzateke, horrela pixkanaka-pixkanaka inguruan duen eskola kentzeko, gurasoengandik urrun egoteko ohitura hartu behar dute.

Umeari erantzunak eman behar zaizkio, arazoren bat sortuz gero zer egin behar duen jakiteko; horrela lasai joango da, zer gertatuko zaion beldur joaten bada, segur aski txarto pasatuko du, erantzunak txikitatik irakasten bazaizkio kanpamentuetara joateko orduan ez dago arazorik.

**4.Atzerrira joateko zein adin gomendatzen da?**

Umearen eta atzerriko hizkuntza mailaren arabera, hizkuntza ezagutzen ez duen gazte batek atzerriko familia edota ikastetxean txarto pasako du, besteek ulertzeko nola egin ez du jakingo eta hustasuna eta afektibotasun eza sortuko da, ez da trauma bat izango, baina txarto pasako du.

Hizkuntza ezagutzen dutenean, hamabi edota hamalau urtetik gora joan daitezke atzerrira.

**5.Etxetik kanpo daudenean gurasoek umeekin kontaktua izatea ona da?**

Bai, momentu guztietan ezin da deitu baina hiru edo lau egunean behin bai, eta umearen arabera ere. Atzerriko barnetegian egonez gero, bi egunean behin dei daiteke, eta urrunago badago hiruzpalau egunean behin, desberdina da eta.

**6.Zeintzuk izaten dira kanpamentuek izan behar dituzten aktibitateak?**

Askotarikoak, beti jolasak, taldeko dinamikak, kanpoko jolasak, umeen arteko lagunkidetasuna sustatzeko jolasak, zabalak, harremanak hobeak, eramangarriagoak izateko eta beste umeekin nola bizi behar den ikasteko.

**7.Gurasoek nola jakin dezakete zein den kanpamentu egokia bere seme-alabarentzat?**

Gurasoek bere seme-alabak ezagutu ohi dituzte, beren gustuak, gustu hauek kontuan hartuz, hondartza ala mendia adibidez, erabaki behar dute. Batzuetan, umeak estatuak izango balira bezala hartzen ditugu, hau eta hura egin behar ditu niri gustatzen zaidalako, beren gustuak kontuan hartzekoak dira.

**8.Umeari kanpamentuaren ideia ez bazaio batere gustatzen, nola jakinaraziko diogu ona eta dibertigarria izango dela?**

Zaila baino zailagoa da. Beste umeekin erlazionatzeko beharra eta ondo pasako dutela jakin behar dute, arazoren bat sortzen bada monitoreak eta beste umeek lagunduko diotela ere esan behar zaie. Proba dezake eta ez bazaio gustatzen beste modu bat bilatuko da.

Deitzen badu esateko ez zaiola gustatzen egun batzuk pasa behar direla esan behar diogu, lasai egoteko eta adaptazioa hartzen duen heinean pozago egongo da.